

Mayor Oreja: «Ez dago elkarrizketarik Gobernu eta ENAMen munduaren artean»


«Benetako elkarrizketa Lizarraren barnean dago», Barne ministroaren ustez

Agentziak / Bilbo

Jaime Mayor Oreja Barne ministroak atzo azaldu zuen ez dagoela elkarrizketarik ezker abertzalearen eta Madrilgo Gobernuaren artean. Mayorren arabera, «HBk eta bere inguruneak Lizarrako sinatzaileengan bakarrik sinesten dute, eta benetako elkarrizketa akordio horren barne dago».

ESPAINIAKO GOBERNUAK azken asteotan ez duela ezker abertzalearekin kontakturik izan adierazi zuen atzo Jaime Mayor Oreja Espainiako Barne ministroak. Gobernuak eta EHk elkarrekin bilera egingo duten galdetu zioten kazetariak Mayorri Bilbon eskaini zuen prentsurrekoan. Barne ministroak erantzun zuen Gobernuak azken hilabeteotan ez dela mintzatu su-etenaren ostean sortutako egoeraz, pauso garrantzitsurik izan ez delako. «Gaur egun ez dago elkarrizketarik mundu horren eta Gobernuaren artean, beraiek uste baitute aurretik garaitu dituztenekin bakarrik hitz egin dezaketela».

Barne ministroak erantsi zuenez, «benetako elkarrizketa Lizarraren barne dago». Hala ere, Gobernuak «sendo jarraituko» duela azaldu zuen, ETaren su-eten mugagabea behin betiko bihur dadin zein aukera dauden jakiteko asmoz. «Gobernuak bere jarrerari eutsiko dio, eta



LUIS TEJIDO / EFE

Jaime Mayor Oreja Antonio Basagoiti Bilboko Udalera PPren hautagaia agurtzen, atzo, Carlos Iturgaitz atzean dela.

ez gaude urduri ETaren edo Euskal Herritarrok taldearen estrategiatik».

Bestetik, Jaime Mayor Oreja pozik agertu zen Juan Jose Ibarretzek legealdiko akordioa izateko EHk politika eta indarkeria bateraezinak direla agertzea ezinbesteko jo zuelako. «Lehen ere esan zuen, eta poztan naiz berriz esan duelako, ezin baita indarkeria eta bakearen artean erdibidean egon. Jaurlaritzak EHri beharrezko diren eskaerak egitea espero dut».

Joan den astean EAJ, EA, EH eta IUk Legebiltzarrean onartutako adierazpena ez dela nahikoa iritzi dio. Bere ustez, Ajuria Eneko Itunaren garaitik atzera egitea da iragan asteko agiria. Beste askotan egin bezala, atzo ere Barne ministroak esan zuen ETari eskatu beharreko

bakarra dela betiko hiltzeari uztea. HBri, berriz, behingoz indarkeria ekintzak egiteari uzteko eskatu behar zaio, Mayorrek dioenez.

Mayor, Antonio Basagoiti PPTik Bilboko alkatetzarako aurkezteko eginiko prentsurrekoan izan zen. Javier Arenas alderdiko idazkari nagusia ere bertan izan zen, eta adierazi zuen EAEn jada 1995ean baino toki gehiagotan zerrendak aurkezteko moduan dela PP. Zerrenda horien oinarria EAEko PPko militanteak izango direla ziurtatu zuen Arenasek, eta «kasu gutxi batzuetan» zerrendak osatzeko EAetik kanpoko PPko militanteak erabiliko dituztela.

Udal hauteskundeon garrantzia ere aipatu zuen Arenasek, eta Mayorrek garrantzi hori berretsi zuen.

«Bake prozesua sendotzen bada guardia zibil kopurua egokituko da», Valdivielsok dioenez

■ Oraindik horretarako agudo dela azaldu zuen Guardia Zibileko zuzendariak

Europa Press / Valentzia

BAKE PROZESUA sendotzearen baitan jarri zuen Santiago Lopez Valdivielso Guardia Zibileko zuzendariak EAEko guardia zibil kopurua egokitzea. Oraindik horri buruz hitz egiteko goiz dela azaldu zuen, baina prozesuak bide ona hartzen badu egokitu egin beharko dela aitortu zuen. «Bake prozesuak amaiera ona badu egokitzenak egin beharko dira».

Madrilgo Ituna dela-eta «alderdiaren interesak» baztertze eskatu dio Piquek PSOEri

Agentziak / Madril

PSOE-RI «interes alderdikoiak» alde batera uzteko eskatu zion atzo Josep Pique Gobernuko bozeramaileak, Josep Borrell buruzagi sozialistak Madrilgo Ituna biltzeko eginitako eskakizuna dela-eta. «Lasaitasunari eutsi behar zaio, azaldu zuen, eta ez dira gauza hauek alderdien interesen aldetik edo norbera-

ren interesen aldetik begiratu behar», azaldu zuen Piquek.

Gauzak egin behar dira egokia dela ikusten denean, Piquereren arabera, «eta ez alderdi bati kome- ni zaionean».

Iragan asteburuko kale indarkeria ekintzak ere mintzagai izan zituen Piquek. EAJ eta EAri esan zien «irteerarik gabeko kale batera» doazela EHren esku-

tik. Iragan astean Legebiltzarrean onartu zen testua kontuan hartuta, Piquek «onartezin eta ulertezintzat» jotzen du EAJ eta EA EHren bat etortzea zenbait planteamendutan.

EAJ eta EA indarkeria salatze orduan oso argiak izan direla adierazi zuen Piquek, baina EHren kasuan ez dela horrela gertatzen adie-

razi zuen. Ildo horretatik kritikatu zuen alderdi abertzaleek joan den astean Legebiltzarrean onartu adierazpena aurre- rapausoa dela esatea.

Piquek EHri ondo-ko hau esan zion: «Ez da elkarrizketarik posible izango alderdi horrek joko demokratikoaren arauak argi eta garbi onartzen ez dituen artean».